


Euskal AEko BPG hiruhileko arteko %0,4 hazi da 2014ko bigarren hiruhilekoan

Hazkunde honen eragilea Barne Eskaria da; kanpo-sektorea apalago dabil

2014ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko BPG %0,4 gehitu da, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago, Eustaten datuen arabera. Espainiako ekonomiarena (%0,6) baino bi hamarren txikiagoa da.

Euskal AEko BPGk urte arteko %0,9ko hazkundera izan du aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Bederatzi aldiz urte arteko tasa negatiboak izan ondoren, bigarren datu positiboa da. Urte arteko hazkundera Espainiako ekonomiarena (%1,2) baino hiru hamarren txikiagoa da eta 18-Euro eremuarena (%0,7) baino bi hamarren handiagoa.



Eskaintzaren ikuspegitik, BPGren urte arteko hazkundera lau jardura-sektore handien bilakaera ezberdinen konbinazioaren emaitza da. Bai lehen sektoreak, bai industriak, bai zerbitzuek oro har

aldakuntza positiboak dauzkate jarduera-mailetan; eraikuntzan berriz ere balio erantsiaren beherakada.

Lehen sektoreak urte arteko %7,7ko hazkundera izan du.

Industria, bigarren hiruhilekoan, %0,7 hazi da, lehenengoan baino ehuneko bi hamarren gehiago urte artean; hirugarren hiruhilekoa jarraian urte arteko hazkunde-tasa positiboekin. Urte arteko hau hiruhilekoen arteko hiru hamarrenen hazkundera gauzatzen da; alegia, beste hiruhileko batez lortzen du industriak hiruhileko arteko positiboa.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2013				2014	
	I	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-5,0	-1,6	-1,8	-12,9	-1,3	7,7
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-3,0	-2,7	-1,9	0,0	0,5	0,7
Manufaktura-industria	-3,2	-2,5	-1,9	0,1	0,6	0,9
ERAIKUNTZA	-6,8	-6,6	-5,2	-1,2	-1,4	-1,4
ZERBITZUAK	-1,0	-0,7	-0,4	-0,1	0,6	0,9
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-2,0	-1,6	-1,4	-0,6	-0,2	0,4
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	-1,7	-0,4	-0,1	0,9	1,9	1,9
Gainerako zerbitzuak	-0,2	-0,1	0,0	-0,4	0,4	0,6
Oinarritzko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	-1,9	-1,6	-1,1	-0,3	0,4	0,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,9	-0,5	-0,6	-0,6	0,4	1,9
BPGda merkatuko preziotan	-1,9	-1,5	-1,1	-0,3	0,4	0,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntzak berriz izan du urte arteko tasa negatiboa, %-1,4, aurreko hiruhilekoan bezalaxe. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %-2,9.

Zerbitzuetan, urte arteko %0,9ko eta hiruhileko arteko %0,7ko hazkundeak.

Zerbitzuen bederatzi hamarrenen urte arteko hazkundera osagaien indar ezberdinetako bilakaerei zor zaie:

Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuen adarra %1,9 hazi da; **Gainerako zerbitzuak** (besteren artean, jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak) %0,6; **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %0,4.

Hiruhileko artean, jarduera-azpisektore guztiak hazi dira. **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** dira berriz ere hiruhileko arteko gehien hazi direnak, %1,4. **Gainerako zerbitzuak** %0,6 hazi dira eta **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %0,4.

Sektore-agregatuen joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko bilakaera positiboa ekarri du (%0,8); 2014ko bigarren datu positiboa, bederatzi hiruhilekotan negatiboak izan ondoren. Aurreko hiruhileko urte arteko datua baino lau hamarren hobe da. Hiruhilekoen artean eta hirugarren hiruhilekoz jarraian hazkundera dugu, %0,2.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde- tasak. Euskal AE. %

	2013				2014	
	I	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-20,1	-24,9	25,0	16,3	-9,5	-18,1
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-0,2	0,1	0,1	0,1	0,3	0,3
Manufaktura-industria	1,5	-1,2	-0,5	0,3	2,0	-0,9
ERAIKUNTZA	-2,6	-2,9	-0,2	4,5	-2,7	-2,9
ZERBITZUAK	0,1	0,5	-0,4	-0,3	0,8	0,7
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,3	-0,2	-0,7	0,5	0,2	0,4
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	1,7	1,4	0,2	-2,4	2,7	1,4
Gainerako zerbitzuak	-0,6	0,4	-0,5	0,3	0,2	0,6
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	-0,4	-0,1	-0,1	0,3	0,3	0,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,7	0,1	0,8	0,2	-0,6	1,5
BPGda merkatuko preziotan	-0,5	-0,1	0,0	0,3	0,3	0,4

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eskariaren aldetik, bi gauza aipagarri. Aurrena, Barne eskariaren bilakaera positiboaren nolabaiteko sendotzea, ehuneko puntu bat, aurreko hiruhileko datu positiboaren segidan. Bigarren, Barne eskariaren datu positibo honi kontra egiten dio kanpo-merkataritzaren bilakaera apalagoak, zeinak BPGren murrizte arina dakarren. Inportazioak pittin bat hazi dira, gutxiengo esportazioak.

Familia-etxeetako Azken Kontsumoari dagokion Gastuak, kontsumo pribatuak, urteko lehen hiruhileko bilakaera positiboa sendesten du. %1,4ko hazkundera dugu bigarren hiruhileko honetan; aurrekoarekin alderatuz gero, puntu bat eta bi hamarren gehiago. Hiruhileko tasa, %1,2.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde- tasak. Euskal AE. %

	2013				2014	
	I	II	III	IV	I	II
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	-1,2	-1,1	-1,3	-0,6	0,3	1,3
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDERAKO GASTUA	-1,7	-0,9	-1,3	-0,1	0,2	1,4
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	0,5	-2,1	-1,1	-2,3	1,0	0,5
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-4,7	-4,0	-3,8	-0,3	-1,1	-0,1
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetarako	-2,8	-1,1	-0,8	0,1	0,4	1,4
Gainerako kapital-eraketa gordina	-5,5	-5,3	-5,1	-0,5	-1,7	-0,9
BARNE-ESKARIA	-2,0	-1,8	-1,8	-0,5	0,1	1,0
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-6,7	2,9	5,5	3,1	3,4	2,3
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	-6,6	2,3	4,0	2,7	2,6	2,4
BPGda merkatuko preziotan	-1,9	-1,5	-1,1	-0,3	0,4	0,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kontsumo publikoa (Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua) %0,5 hazi da urte artean, aurreko hiruhilekoan baino bost hamarren gutxiago; honek hiruhilekoen arteko %4,7ko jaitsiera dakar.

Azken Kontsumoko Gastua (Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua eta Familia-etxeetakoa) %1,3 gehitu da. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %-0,1.

Kapital eraketa gordinak (Inbertsioa) beheraka darrai, urte artean %0,1 jaitsi delarik; hiruhilekoen artekoa, %0,5 positiboa. Berriz ere inbertsioaren jokaera bi bilakaera kontrajarritan oinarritzen da. Ekipo-ondasunetan eginiko inbertsioa %1,4 hazi da urte artean eta %2,0 hiruhileko artean. Kapital eraketa gordinaren gainerakoak -eraikuntzarekin lotuagoak- tasa negatiboak ditu, bai urte artean (%-0,9), bai hiruhileko artean (%-0,2)

Barne eskaria, zeina osatzen baitute Azken kontsumoko gastuak eta Kapital eraketa gordinak, %1,0 gehitu da urte artean. Aurreko hiruhileko datua baino bederatzi hamarren hobe da.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2013				2014	
	I	II	III	IV	I	II
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	0,8	-1,0	-0,3	-0,1	1,8	-0,1
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	-0,1	0,0	-0,3	0,4	0,1	1,2
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	4,4	-4,3	-0,3	-1,9	7,9	-4,7
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-1,2	-0,4	0,6	0,7	-2,0	0,5
Kapital finkoaren eraketa gordinak ekipo-ondasunetan	0,5	1,0	0,0	-1,4	0,9	2,0
Gainerako kapital-eraketa gordinak	-2,0	-1,1	0,9	1,7	-3,2	-0,2
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	1,3	7,4	1,8	-6,9	1,5	6,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	2,6	5,9	1,6	-6,9	2,5	5,6
BPGda merkatuko preziotan	-0,5	-0,1	0,0	0,3	0,3	0,4

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpo-sektoreak beheraka ekarri du BPG, zertxobait. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak %2,3 gehitu dira urte artean, eta %2,4 inportazioak.

Enplegua, bigarren hiruhileko honetan (**Dedikazio osoko baliokidetzan neurtuta**) %0,1 hazi da urte artean, bost urtez jarraian hiruhilero jaitsi ondoren. 2014ko lehen hiruhilekoaren aldean, urte arteko honek %0,5eko hazkundera dakar.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, enplegua jaitsi egin da Industrian eta Eraikuntzan; beste bi jarduera-sektoreetan, ez. Zerbitzuetan %0,9 hazi da enplegua urte artean. Lehen sektorea %0,7 hazi da. Urte arteko jaitsierarik handiena berriz ere Eraikuntzan, %-2,7. Industrian, %-1,8.

Hiruhileko artean, Lehen sektoreak %7,4ko hazkundera eta Zerbitzuetakoak %0,8koa. Lehen hiruhilekoaren aldean, Industrian %-0,8 eta Eraikuntzan %-0,4.

Urte artean BPG %1,1 hazi da Gipuzkoan, %0,8 Bizkaian eta %0,7 Araban. Hiruhileko artean, Arabak %0,1, Bizkaia %0,4, Gipuzkoak %0,4.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko datu-bankua